

# BECAS PATOJAS 2022-2023 BOLETINA



BECAS DE ESTUDIO  
PATOJAS  
PROIEKTUA

# 2022 KURTSO AMAIERA

150

ESTUDIANTES FINALIZAN EL CURSO

92,1%

niñas y mujeres finalizan estudios. EN TOTAL 35.

2022ko ikasturtean, 155 bekadunetatik 150ek amaitu zuten kurtsoa. 5 bekadun, lehen hezkuntzako 1, dibertsifikatuko 3 eta oinarrizko hezkuntzako 1, arazo familiar eta ekonomekoengatik ikasteari utzi behar izan zuten.

	GRUPOS	DIVERSIFICADO		TOTAL
		CHICAS	CHICOS	
HUEHUETENANGO	TODOS SANTOS	1		1
	IXTAHUACÁN	4	1	5
	AJOMAYA	6	1	7
	CHIANTLA	1		1
SOLOLÁ	CEIBA	6		6
	S. L. TOLIMÁN	3		3
	CASA DE LA MUJER	2		2
	OXLAJUJ E	4		4
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	4	1	5
	SUMPANGO	4		4
	TOTAL		3	40

## DIBERTSIFIKATUKO IKASKETAK AMAITZEN DITUZTE

Aurten, 40 ikaslek amaitzen dituzte Dibertsifikatuko ikasketak. En total, **37 becadak**, lo que supone un **92,5%**.

92,5%

niñas y mujeres finalizan estudios. EN TOTAL 37.

40

ESTUDIANTES de DIVERSIFICADO

Aukeratutako hezkuntza espezialitateen artean, **osasunarekin lotutako ikasketen igoera nabarmentzen da**, batez ere pandemiaren ondorioz. Bestalde, **haur-irakaskuntza-ikasketetarako eskaria gutxitu egin da** azken urteotan, neurri batean, gehiegizko eskaintzagatik, soldata baxuengatik edo ikasketa-maila baxuagatik.



## 2022KO LABURPENA

2022ko Aste Santuko oporren ostean, 2 urtez etenda zeuden klase presentzialak hasi ziren, segurtasun neurriekin, beharrezkoak ziren maskarak erabiltzea eta distantzia neurriak ere hartu ziren, horretarako, burbuila talde txikiagoak egin ziren eta astean soilik 2 egunetan elkartzen ziren. Susperraldiaren urtea izan da, bai ikaskuntzari dagokionez, bai osasun mentalari dagokionez, pandemiaren eta isolamenduaren ondorioz antsietatea eta beldurra areagotu baitzituzten.

Zentroak itxi ziren garaian, zentro publikoek autoikaskuntzarako gidak eta fitxak erabiltzen zituzten, baina ikasleen ikaskuntzarako lehenengo urteetan irakasleen akonpainamendua ezinbestekoa da ikasleek alfabetatze gaitasunak lortzeko eta hori galdu egin zen.

Plataforma digitalak ere erabili ziren. Guatemalako 2018ko azken biztanleriaren erroldaren arabera, etxean %17,3ak Internet zerbitzua du, %21,3ak ordenagailua du eta %70,5ek telebista dauka, biztanleriaren %80ak telefono mugikorra du. UNICEFen arabera, horrek adingabeen eskolak jasotzeko gaitasuna mugatu zuen koronabirusaren ondorioz itxi zirenetik.

Garai honetan ikastea ez zen berdina neska-mutil guztientzat, ez zuten etxe guztietan argirik, internetik edo telebistarik, ezta testuinguru berdina ere. Ikasgaiak berdinak izan zitezkeen baina ikasi ahal izan zutena ez zen denentzat berdina izan. Horrek esan nahi du kasu askotan hezkuntza atzerapena egon zela.

Eskolako Elikadura Plan Nazionalari esker ematen den eskola-merienda eta kasu askotan eguneko otordu bakarra izan zena, eskolen itxieraren ondorioz, janari-poltsa bihurtu zen.



# 2023 IKASTURTEA

Aurtean kurtsoa 152 ikaslek hasten dute. En total, **127 becas** son para patojas, lo que supone un **83,55%**.

**152**  
IKASLE

**83,55%**

de las Becas son niñas y mujeres. EN TOTAL 127.

Pasaden urtean 40 ikaslek amaitu zuten kurtsoa. Hasiera honetan, 110 ikasle horiek jarraitzen dute, eta 42 ikasle berri hasiko dira. Beka berrien artean 37 neska eta emakumeentzat eta 5 mutilentzat izango dira. Datu probisionalak dira, talde batzuen itxiera datuen zain gaudelako.

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	IXTAHUACÁN	5	2	11	2	5		25
	AJOMAYA	8	2	10		11	2	33
SOLOLÁ	CEIBA			5		4		9
	S. L. TOLIMÁN	4		5		3		12
	CASA DE LA MUJER	1		6		8		15
	OXLAJUJ E			5		5		10
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	7	3	6	3	4	1	24
	SUMPANGO	3	4	3	2	6	3	21
CIUDAD DE GUATEMALA	GUATEMALA	2			1			3
GUZTIRA		30	11	51	8	46	6	152

# 2023KO IKASTURTEA -GAUR EGUN-

2023ko ikasturtea, azken urteetan bezala, 2 fasetan hasi da, zentro pribatuak urtarrilaren erdialdean hasi ziren eta zentro publikoek otsailaren erdialdean egingo dute.

Nabarmendu nahi dugu, badirela beren lurraldeetan erakunde ezberdinen parte diren bekadunak eta hezkuntza formala, hezkuntza ez-formaleko (alternatibo) espazioekin osatzen dutenak. Casa de la Mujer de Sololako arduradunak nabarmentzen du talde honen aparteko gaitasunen garapenean izandako aurrerapena:

**"Ikasleak, gizartean antolakuntza espazioetan, integrazio eta parte-hartze espazioetan sartzeak ere garrantzi handia du, erantzukizunak eta konpromisoak bere gain hartzeko aukera ematen dielako, hezkuntza-prozesua amaitu eta bizitza-plan bat aurkeztu ahal izateko, hazkunde pertsonal eta profesional garrantzia handiagoa ematen".**

Talde horren parte den bekadun baten hitzak dira hauek:

Ha sido importante porque de esa manera nosotras podemos expresarnos de diferentes maneras y tener un vocabulario bien porque eso es lo que nos enseñan en cada establecimiento, tener buena conducta y respeto.

Ixoq Chajib'al Ja Casa de la Mujer Elkarteak, zeinekin lankidetzaproiektuak eta ikasketa-bekekin laguntzaproiektuak ditugun, emakume erasotuen akonpainamenduan eta aholkularitzan lan egiten du. Argi dute hezkuntzaren beharra eta balioa zein den eta guk geuk ere bat egiten dugu transmititzen diguten premisarekin:

**"Hezkuntzarako Giza Eskubidea ezinbestekoa da gizon eta emakumeen arteko botere harremanetan egiturazko aldaketak bermatzeko, eta, horrekin, gizarte justuagoak eta bidezkoagoak sustatzeko".**

*mejorar su condición de vida y sanar desde distintos espacios, pues entendemos el acceso a la educación como otra forma de sanación, de crecimiento y madurez, así como del reconocimiento de nuestras capacidades como mujeres. A través de este proceso, hemos notado que realmente existe el cambio en cada una de ellas".*

Bereziki eskerrak ematen dizkigute Entreamigos-Lagun Artean eta amabitxi eta aitabitxiei, "indarkeriatik bizirik irten dire emakumeei eta beren alabei laguntza eskaintzeagatik. Horrekin, euren bizi-baldintzak hobetzeko aukera izango dute eta sendatzea ere beste espazio batzuetatik ere lortzeko. Hezkuntzarako sarbidea, sendatze modu bezala ulertzen dugu, hazteko eta heldutasunerako, baita emakume gisa ditugun gaitasunak aitorteko ere. Prozesu honen bitartez, gutako bakoitzarengan aldaketa benetan daudela ohartu gara".



# GAUTEMALA GAUR

## "IKASTETXE ETA IKASGELETARA ITZULERA, IKASTEKO BALDINTZA DUINAK BERMATU GABE"

Mineduc-en arabera, 2023ko ikasturtea sektore publikoan 3,1 milioi ikasle baino gehiagorekin hasi zen. Covid-19 pandemiak eragindako murrizketen ondorioz, eskoletara bueltatzeko garaia heldu da, ordurako egoera txarrean zeuden eskolak eta materialak, hezetasunak, beroak eta hautsak, altzariak gehiago kaltetu ditu.

Giza Eskubideen Arartekoak landutako hezkuntza-eskubideei buruzko Egiaztatzeko Txostenean argitaratu ziren ondorioen artean, altzarien egoera ez zela egokia «kalitatezko hezkuntza bat» eskaintzeko, ezta «ikasteko baldintza duinak» bermatzeko ere. ikasteko» ikasleen. Kontrolatutako 300 establezimendu publikoetako bi mahaitik bat hondatuta zegoela egiaztatu zen.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/47-mil-escriptorios-se-compraron-en-tres-anos-para-equipar-las-escuelas/>

Gurasoek txatarran zeuden mahaiak konpondu zituzten kasuak ezagutarazi ostean, Claudia Ruiz, Hezkuntza sailburuak, baieztatu du ministerioak jakin duela ikastetxeetako gabeziak zeintzuk diren.

Bere hitzetan, gainera, azpimarratzen dugu "Zehazki, laguntza programak zabaltzeak ikasleen matrikula areagotu egin duela eta honekin batera mahai gehiagoren eskaria dagoela. Gutxi gorabehera 400 mila mahai inguru ditugu beharko liratekeenak.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/son-unos-400-mil-escriptorios-que-harian-falta-ministra-de-educacion-reconoce-que-son-las-carencias-en-escuelas-para-el-ciclo-escolar-2023/>



## DESNUTRIZIOA: TXANPONAREN BESTE ALDEA

Desinformazio maila handia dago, Guatemalan dagoen desnutrizioari buruz. Lurralde indigenetan, elikagai nutritiboak eta ezberdinak ekoizteko baliabide faltagatik gertatzen da, eta hori, pandemia dela eta, okerrera besterik ez du egin. Guatemalako nesken eta mutilen artean desnutrizio-tasen igoera kezkarria da. Arazoa larriagotu egin da hainbat arrazoiren ondorioz, hala nola, familia-errenta baxuengatik, langabeziaren gorakadagatik eta elikadura produktuen prezio garestiengatik.

Familiek pobrezian eta muturreko pobrezian bizi diren baldintzek hezkuntzarako sarbidea eta haurren garapenerako eta hazkuntzarako elikadura-kalitatean eragina duten aukeragabeziak oztokatzen dituzte. Beraz, eskolauztea eta desnutrizioa elkarrekin doazen bi faktore dira eta neska-mutil guztientzat estali behar direnak.

<https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/solo-haiti-tiene-mas-poblacion-en-inseguridad-alimentaria-que-guatemala-segun-informe-el-bid/>

# NBE-N KEXA: ESKOLA-UZTEA ETA LAGUNDU GABEKO NESKA-MUTILEN MIGRAZIOA, BESTEAK BESTE.

"Kexarekin Estatuak osasun langileei haur eta nerabeentzako beharrezko baliabideak ematea nahi zuten. Gurasoek dirua gastatu behar zuten medikuntzan, ez zegoen ekipamendu egokirik eta osasun-langileak ez ziren nahikoa haiek zaintzeko. Uzte hori osasun arloan ez ezik, hezkuntzan eta haurren babesean ere erregistratu zen, aipatutako erakundeek 2023an Guatemala ebaluatuko duen Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluari aurkeztutako txosten batean erakutsi duten haustura.

y deciden dejarlo ya que no ven que invertir esfuerzo y dinero en estudiar les lleven a tener mejores condiciones de vida. Gobernuak hezkuntzan utzitako hau dela eta, Herrialdeko gazteen nekea nabarmentzen dugu, Gobernuak hezkuntza alde batera usten duela ikusten dutelako. Uzte horrek, ikasketak errentagarriak ez direla pentsatzera eramaten die, eta bertan behera lagatzen dituzte. Ez daukate argi, ikasketetan dirua eta ahaleginak inbertitzea, bizi-baldintza hobekak ekarriko dizkietela.



Hezkuntzari dagokionez, kontsultatuko hiru entitateen arduradunen arabera, atzerapena egon da neska-mutileen ikaskuntzan, alfabetatze, ortografia eta ikaskideekiko harremana bezalako alorretan. 2022ko abuztuan, ebazpen baten bidez, Claudia Ruiz egungo Hezkuntza sailburuari leporatu zion Giza hezkuntza eskubidea urratzea.

<https://prensacomunitaria.org/2022/11/denuncian-en-la-onu-que-el-estado-abandono-a-la-ninez-durante-la-pandemia/>

Bai desnutrizioak, baliabide ekonomiko faltagatik, bai etxeko indarkeriak zuzenean eragiten diote Guatemalako herri indigenetako neska-mutileen prestakuntza akademikoari, batez ere emakume gazteei, ia sistematikoki esleitu zaien zaintzaileen eginkizunagatik. Neska hauek hezkuntza osoa jasotzen dutela bermatzea ezinbestekoa da lana lortu eta emantzipazioa lor dezaten, eta aldi berean, egunerokoan jasaten duten etxeko indarkeriatik aldendu ahal izateko beharrezko ezagutzak izan ditzaten.

## HAUTESKUNDEEN URTEA, KONPLIKATUA

Egoera korapilatsu batetik abiatzen gara, bai alderdi politikoei hauteskundeetara aurkezteko ezartzen ari zaizkien betoengatik, bai lurraldearen defendatzaileei egiten ari zaien kriminalizazioagatik.

Front Line Defenders erakundeak adierazi duenez, 2019az geroztik, lurraldearen 24 defendatzaile erail dituzte Guatemalan, eta munduko seigarren herrialde arriskutsuena da.

<https://prensacomunitaria.org/2023/02/diputados-espanoles-istan-al-gobierno-a-respaldar-a-personas-defensoras-del-territorio-en-guatemala/>

Oposizioko hautagaien ez parte-hartzea, legez kanpoko hauteskunde finantzaketa eta baldintza desorekatuak sortzen dituzten neurriak dira Juan Pappier-ek, Human Rights Watch-eko Ameriketarako jarduneko zuzendariordeak, ikusten dituen mehatxu nagusietako batzuk.

Pappierrek adierazi du Guatemalako egungo hauteskunde-prozesua zuzenbide-estatua okertzen ari den testuinguruan gertatzen ari dela, non egiaztatzeaz eta behatzeaz arduratzen diren erakunde nagusiek "Guatemalar askorentzat independentzia eta sinesgarritasunik ez duten".

<https://prensacomunitaria.org/2023/02/human-rights-watch-alerta-sobre-amenazas-al-proceso-electoral-en-guatemala/>